

DEIALDIEI UKO EGITEA

Lanbide-modulu bakoitzerako aurreikusitako deialdiak ez agortzearren, ikasleek bi aldiz uko egin ahal izango diote heziketa-zikloetako lanbide-moduluetako bakoitzaren ebaluazioari eta kualifikazioari.

Uko egiten zaion ebaluazioa egin baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko du eskabidea **norberak, zentroaren idazkaritzan**, dagokion egiaztagiriarekin batera.

Eskaerak aldeko ebazpena izango du honako zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada:

- Ikaslearen gaixotasun luzea.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duen lanpostu batean hastea.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duten obligazio pertsonalak edo familiarrak izatea.
- Eskaera zuzentzen den ikastetxearen zuzendariak aintzat hartutako beste ezohiko zirkunstantzia batzuk.

[Deialdiari uko egiteko eskaeraren inprimakia](#)